



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko apirilaren 28a

42. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

- 11-26/LEY-00002. Foru-lege proiektua, zeinak xede baitu onura publikoa deklaratzeko eta Ablitasko Udaleko herri-lurretako 59.873,41 metro karraturen desafektazioa onestea (2. or.).
- 11-26/LEY-00003. Foru-lege proiektua, 2025eko inbertsio-programaren barnean 2026ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuaren zenbait departamentutara bideratuko diren aparteko kredituei eta kreditu-gehigarriei buruzkoa (4. or.).

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

- 11-26/PRO-00006. Foru-lege proposamena, ikasle kopuruan izandako aldaketaren ondorioz hezkuntza publikoko eta itunduko unitateak aldatzeko irizpideak ezartzen dituen. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (7. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-26/CLC-00001. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrenda hautaprobentz bidez eratzeko, aldi baterako administrazio-kontratazioarako (9. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-26/LEY-00002. Foru-lege proiektua, zeinak xede baitu onura publikoa deklaratzeko eta Ablitasko Udaleko herri-lurretako 59.873,41 metro karraturen desafektazioa onestea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artiku-luak aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2026ko apirilaren 22an hartutako Erabakiaren bidez, onura publikoa deklaratzeko eta Ablitasko Udaleko herri-lurretako 59.873,41 metro karraturen desafektazioa onestea xede duen foru-lege proiektua igorri dio Nafarroa-ko Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 179. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Ba-tzarrarekin adostu ondoren, honako hau ERABA-KITZEN DA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea ea zuzenean eta irakurketa bakarrean izapidetuko ote den foru-lege proiektua, zeinak xede baitu onura publikoa deklaratzeko eta Ablitasko Udaleko herri-lurretako 59.873,41 metro karraturen desafektazioa onestea.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurre-ko egunaren eguerdiko hamabietan bukatuko baita. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aur-keztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proiektua, zeinak xede baitu onura publikoa deklaratzeko eta Ablitasko Udaleko herri-lurretako 59.873,41 metro karraturen desafektazioa onestea

ZIOEN AZALPENA

Ablitasko Udalak eskatu du onura publikoa deklaratzeko eta herri-lurretako 59.873,41 metro karraturen desafektazioa onestea. Hain zuzen, herri-lurretako 1302, 1303 lurzatiak eta 894 metro karratu bide dira, Ablitasko Udalaren herri-ondasun gisa afektatuak daudenak.

Lurzati horiek desafektatuz eta ondoren trukea eginez, Ablitasko Uretzatzaileen Elkarteak Lodosa-ko ubideko urak erregulatzeko putzua, ponpaketa-estazioa eta transformazio-zentroa dauden lursai-len jabe bihurtzea da helburua, eta, halaber, 801,9 kWp-eko autokontsumo elektrikoko eguzki-instalazio fotovoltaiko baten proiektua aurrera era-matea.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uzta-laren 2ko 6/1990 Foru Legearen 140. artikuluko 5. apartatuan xedaturikoaren arabera, Ablitasko Uda-lak eskatzen duen desafektazioa foru-lege bidez onetsi behar da, eremuak lurzati txikiaren defini-zioaren mugak gainditzen dituelako.

1. artikulua. Onura publikoaren deklarazioa.

Onura publikoa deklaratzeko eta Ablitasko Udalaren herri-lurretako 59.873,41 metro karratu-ren desafektazioa onesten da. Hain zuzen, herri-lurretako 1302, 1303 lurzatiak osorik eta 894 metro karratu bide dira, Ablitasko Udalaren herri-ondasun gisa afektatuak daudenak; Ablitasko katastroko 10. poligonoan daude guztiak. Lur horiek herri-ondasun gisa mantenduko dira foru lege honetako 2. artiku-luan adierazitako moduan trukea egin bitartean.

2. artikulua. Zuzenean trukatzeko baimena.

Baimena ematen zaio Ablitasko Udalari aurreko artikuluan deskribatutako lurren trukea egiteko Ablitasko Ureztatzaileen Elkartearen jabetzakoak diren 124.438,67 metro karraturekin (1. poligonoko 2514 lurzatia, 5. poligonoko 1706 eta 1814 lurzatiak, 7. poligonoko 884 eta 890 lurzatiak eta 8. poligonoko 598 eta 602 lurzatiak, osorik), hartara, Ablitasko Ureztatzaileen Elkartek Lodosako ubidearen urak erregulatzeko putzua, ponpaketa-estazioa eta transformazio-zentroa dauden lurren jabetza eskuratu ahal izateko eta, halaber, 801,9 kWp-eko autokontsumo elektrikoko eguzki-instalazio fotovoltaiko baten proiektua aurrera eramateko, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Trukea egiteko itunean, klausula batek xedatu dezala lurak herri-ondarera itzuliko direla baldin eta desfektazioa bultzatu zuten xedeak edo desfektazioaren baldintzak desagertzen badira edo betetzen ez badira.

b) Itzultze klausula hori ager dadila trukeak formalizatzeko agiri publikoetan eta horiek Jabetza Erregistroan inskribatu daitezela.

c) Ablitasko Udalak 2024ko maiatzaren 15ean onetsitako baldintza-agirian jasotako estipulazioak bete daitezela, Ablitasko 10. poligonoko 1302 eta 1393 lurzatiei eta 894 metro karratu bideri dagozkien 59.873,41 metro karratu herri-lurretatik desfektatu ahal izateko.

Azken xedapenetako lehena. Aplikazio eta garapenerako xedapenak.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

11-26/LEY-00003. Foru-lege proiektua, 2025eko inbertsio-programaren barnean 2026ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuko zenbait departamentutara bideratuko diren aparteko kredituei eta kreditu-gehigarriei buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2026ko apirilaren 22an hartutako Erabakiaren bidez, 2025eko inbertsio-programaren barnean 2026ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuko zenbait departamentutara bideratuko diren aparteko kredituei eta kreditu-gehigarriei buruzko foru-lege proiektua igorri dio Nafarroako Parla-mentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 179. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrekin adostu ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea ea zuzenean eta irakurketa bakarrean izapidetuko ote den 2025eko inbertsio-programaren barnean 2026ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuko zenbait departamentutara bideratuko diren aparteko kredituei eta kreditu-gehigarriei buruzko foru-lege proiektua.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan bukatuko baita. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proiektua, 2025eko inbertsio-programaren barnean 2026ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuko zenbait departamentutara bideratuko diren aparteko kredituei eta kreditu-gehigarriei buruzkoa

ATARIKOA

Nafarroako Gobernuak aparteko kredituen eta kreditu-gehigarrien proposamen bat bidali du. Izan ere, 2025eko inbertsio-programa kontuan izanda, ez dago kreditu nahikorik aurrekontu-partidan edo esleitutakoa ez da nahikoa 2026an egindako zenbait gastutarako, datorren ekitaldirako berandutu ezinekoak diren zenbait konpromiso bete ahal izateko.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirila-ren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehen paragrafoan ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta bertan krediturik ez badago edo kontsignatuta dagoena aski ez bada eta ezin bada handitu aipatutako foru legean jasotako xedapenen arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parla-mentuari, aparteko kreditu bat ematekoa, lehen kasuan, edo kreditu-gehigarri bat ematekoa, bigarrenean.

Era berean, bigarren paragrafoan ezartzen denez, zilegi da, kreditu-gehigarria eta aparteko kreditua finantzatzeko, edozein gastu-programatako beste kreditu erabilgarri batzuk baliatzea, are Parla-mentuak zuzenketen edo foru lege horretako xedapenen ondorioz berariaz onetsitako kredituetakoak, ekitaldi ekonomiko bereko diru-sarrera handiagoen kargura (diru-sarrera horiek errealak edo aurreikusitakoak direla ere) edo jatorrian dagoen gastua egiteari atxikitako diruzaintza-gerakinaren aplikazioa-ren kargura.

1. artikulua. 10.936.646,00 euroko aparteko kreditua ematea honako partida hauei:

AURREKONTU-PARTIDA	ZENBATEKOA
220003-22200-6010-453316 PRIN25, Tuneletako instalazioak berritzea	565.741,00
320000-32100-6020-261204 PRIN25, Eroslehentasun eta atzera-eskuratze eskubideak gauzatzea eta etxebizitzak erosteko eskaintzea	500.000,00
541004-52700-6020-312803 PRIN25, Obrak osasun mentaleko zentroetan	225.105,00
710005-71300-6020-412202 PRIN25, Nekazaritzako elikagaien laborategiko instalazioak egokitzea	250.000,00
720004-72200-7400-412102 PRIN25, Kapital-transferentzia INTIARI zentro logistikoaren proiekturako	240.000,00
740008-74800-6020-456703 PRIN25, IZIZEko basozainen eraikina	160.000,00
920005-93100-6020-231000 PRIN25, Zentro berekietako obrak	1.600.000,00
A20003-A2300-6020-333103 PRIN25, Nafarroako Museoko obrak	66.550,00
A50000-A5000-6029-336112 PRIN25, Larrabideko teknifikazio-zentroan atletismo-modulua eraikitzea, II. fasea	800.000,00
A50000-A5000-6029-336113 PRIN25, Larrabide estadioko eta Guelbenzuko aretoak eraikitzea eta egokitzea	100.000,00
A50000-A5000-7455-336102 PRIN25, Transferentzia NUPEko errugbi-zelairako	1.000.000,00
A30000-A3000-6094-432102 PRIN25, Informazio-sistemak eta proiektu digitalak	250.000,00
B30000-B3000-6020-334102 PRIN25, Energia-efizientzia eta irisgarritasuna	50.000,00
B20001-B2200-6019-232503 PRIN25, Memoria-lekuak	45.000,00
B20001-B2200-6019-232504 PRIN25, Memoriaren basoa sortzea	10.000,00
B20001-B2200-6054-232500 PRIN25, Rozalejo jauregia Ikus-entzunezko ekipamendua	30.000,00
F20001-F2300-6031-112103 PRIN25, Instalazioak eraikin judizialetan	40.000,00
F42000-F4200-6094-921403 PRIN25, Enkargua TRACASA Instrumental enpresari Informazio-sistemak	52.000,00
F40002-F4600-6040-921802 PRIN25, Garraiorako ibilgailuak	165.000,00
F41000-F4100-6020-132103 PRIN25, Herritarren arretarako bulegoetako eta Foruzaingoaren bulegoetako obrak	227.000,00
F41000-F4100-6040-132202 PRIN25, Trafikoa Ibilgailuak	1.435.500,00
F41000-F4100-6060-132103 PRIN25, Informazioa prozesatzeko ekipoak Mugikortasun-proiektua	362.750,00

AURREKONTU-PARTIDA	ZENBATEKOA
F41000-F4100-6094-132103 PRIN25, Enkargua TRACASA Instrumental enpresari Informazio-sistema	250.000,00
F43000-F4300-6020-134204 PRIN25, Obrak suhiltzaile-etxeetan	12.000,00
G10001-G1100-6000-322300 PRIN25, NUPen Tuterako campuserako lurzati bat desjabetzea	1.000.000,00
G20001-G2100-6057-467300 PRIN25, Polo Iris biologia sintetikoko laborategirako ekipoa enkargatzea NASERTIC enpresari	1.000.000,00
G20001-G2100-6060-467300 PRIN25, Polo Iris-en azpiegitura konputazionala enkargatzea NASERTIC enpresari	500.000,00

Aparteko kreditu hori aurrekontu-partida honen kargura finantzatu da:

AURREKONTU-PARTIDA	ZENBATEKOA
113002-12000-8700-000002, Gastu orokorren diruzaintza-gerakina	10.936.646,00

2. artikulua. 10.339.400,00 euroko kreditu-gehirria ematea honako partida hauei:

AURREKONTU-PARTIDA	ZENBATEKOA
320000-32100-7400-261400 PRIN25, Transferentzia NASUVINSari. Alokairuko etxebizitzak sustatzea eta eraikitzea	9.500.000,00
543000-52200-6020-312815 PRIN25, Ospitale Unibertsitarioa antolatze eta birmoldatzeko lanak	627.400,00
G10001-G1100-7455-322303 PRIN25, Kapital-transferentzia NUPi: Tuterako campusa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradu eraikina	212.000,00

Kreditu-gehirri hori aurrekontuko partida honen kargura finantzatu da:

AURREKONTU-PARTIDA	ZENBATEKOA
113002-12000-8700-000002, Gastu orokorren diruzaintza-gerakina	10.339.400,00

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-26/PRO-00006. Foru-lege proposamena, ikasle kopuruan izandako aldaketen ondorioz hezkuntza publikoko eta itunduko unitateak aldatzeko irizpideak ezartzen dituen

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, ikasle kopuruan izandako aldaketen ondorioz hezkuntza publikoko eta itunduko unitateak aldatzeko irizpideak ezartzen dituen foru-lege proposamena aurkeztu du Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121., 122., 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea ikasle kopuruan izandako aldaketen ondorioz hezkuntza publikoko eta itunduko unitateak aldatzeko irizpideak ezartzen dituen foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru-lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

3. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proposamena, ikasle kopuruan izandako aldaketen ondorioz hezkuntza publikoko eta itunduko unitateak aldatzeko irizpideak ezartzen dituen

HITZAURREA

Familiek beren seme-alaben hezkuntza hautatzeko duten askatasuna oinarrizko giza eskubidea da, Espainia parte den nazioarteko erakunde guztiek partekatzen eta aitortzen dutena, eta gure Konstituzioaren 27. artikuluan jasota dagoena.

Nafarroa, urte askoan, funtsezko erreferentia izan da eskubide horren bermean. Familien eskariaren eta hezkuntzara bideratutako baliabideen efizientziaren arteko oreka egokia mantentzen jakin du, eta gure hezkuntza-sistemako funts publikoekin sostengatutako sareen arteko osagarritasun inbidiagarria lortu du, bai hezkuntza publikoan bai itunduan.

Horren froga da, urtez urte, Nafarroako familien ia % 98k plaza lortu dutela eskolatze-prozesuan aukeratu zuten lehen aukeran.

Azken urteotan, errealitate demografikoa bes-telako agertoki bat eratzen ari da hala Espainian nola Nafarroan. Jaiotzak murriztu direnez, beharrezkoa da hezkuntza-sistema berriz diseinatzea, testuinguru berri horri erantzun egokiena emateko. Azken urteotan, Haur Hezkuntzan hasten diren ikasleen herena inguru galdu du Nafarroak, eta inguruabar garrantzitsu hori kontuan hartu behar da, eta sistemaren kalitatea hobetzeko eta Nafarroako familien oinarrizko eskubideak betetzen direla bermatzeko aukera gisa baliatu.

Errealitate berriaren definizio horretan ezin da kanpoan geratu sare itundua, Nafarroan gure ikasleen ia % 40 eskolatzen baita hor. Beharren plangintza errealista batean eta etorkizunari buruzko proiektzio egoki batean oinarritzen ez den erabaki

oro okerra izanen da. Sistemaren beharrei buruzko erabakiak sektarismoan eta ideologian oinarrituta hartzea askatasunaren aurkako atentatua eta injustizia bat izanen da, eta horrek sistemaren kalitatea pobretzea eta hura jardunbide ideologizatu eta hezkuntzaren helburuetatik erabat aldentu batera bideratzea baino ezin du ekarri. Horregatik, gizarterrealitatea hezkuntza-zerbitzura ahalik eta hobekien egokitzeko lanari ekin behar zaio, etorkizunera-ko proiektioarekin eta malgutasun nahikoarekin, urte askoan Espainian erreferente izan den Nafarroako hezkuntza-sistemak eskaintzen dizkigun aukerak ez itozteko.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-zeari buruzko Lege Organikoaren 47. artikuluan eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, Nafarroak eskumena du hezkuntza-itunen araubidea garatzeko beharrezkoak diren arauak emateko.

1. artikulua. Itunak berritzeko irizpideak planifikatzea.

1. Hezkuntza Departamentuak zehaztuko ditu, maila guztietako hezkuntza-itunak amaitzen diren ikasturtearen hasieran, berritzeko eskaerak ebazteko aplikatuko dituen irizpide zehatzak, bereziki kontuan hartuta familiek beren seme-alabentzako nahi duten hezkuntza aukeratzeko duten askatasuna bermatzen duten horiek.

2. Hezkuntza-unitateak ikasle-kopuruaren aldatetara egokitzeko, ikastetxe itunduek Hezkuntza Departamentuak ezarritako irizpideez bestelako proposamenak aurkeztu ahal izanen dizkiote Hezkuntza Departamentuari, honako arlo hauetan,

besteak beste: hezkuntza-inklusioa, ikasleen beharrak, berrikuntza pedagogikoa, esku-hartze soziala edo egokitzat jotzen duten beste edozein alderdi. Itun Batzorde eskudunak nahitaez baloratu beharko ditu proposamen horiek, itundutako unitate-kopurua emate aldera.

2. artikulua. Hezkuntza publikoan eta itunduan ratioak murrizteko irizpideak.

Irakaskuntza itunduan eskola publikorako onesten diren ratio- eta unitate-murrizketarako irizpide berak aplikatuko dira.

Xedapen iragankor bakarra. Indarrean dauden hezkuntza-itunen eta ikastetxe publikoetako ikasgela-kopuruaren luzamendua 2026/2027ko ikasturterako.

Segurtasun juridikoa bermatzeko eta foru-lege honetan xedatutakoa behar bezala aplikatzeko, urtebeteko luzamendua ezartzen da 2026/2027ko ikasturterako eguneratu behar diren hezkuntza-itunak berritzeko eta ikastetxe publikoetako gela-kopurua planifikatzeko, eta ikasturte horretan gaur egun dauden unitate publiko zein itunduak mantenduko dira.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrrik gabe gelditzen dira foru-lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru-lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-26/CLC-00001. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrenda hautaprobez bidez eratzeko, aldi baterako administrazio-kontrataziorako

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 30ean eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Zerbitzu Orokorretako buruak txosten bat aurkeztu du, zeinean proposatzen baita deialdi bat egitea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrenda hautaprobez bidez eratzeko. Proposamen hori legelari nagusiak eskatuta egin da. Espedienteak barne hartzen ditu legelari nagusiaren behar-txostena, deialdiaren oinarriak eta Zerbitzu Juridikoen eta Kontu-hartzaitzaren txostenak.

Aurkezturiko dokumentazioa ikusita, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Deialdiaren oinarriak onestea, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrenda hautaprobez bidez eratzeko.

2. Agintzea deialdia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuaren webgunean argitara dadin.

Iruñean, 2026ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Deialdia, Nafarroako
Parlamentuaren zerbitzuko
legelariak aldi baterako
kontratatzeko izangaien zerrenda
hautaprobez bidez eratzeko,
aldi baterako
administrazio-kontrataziorako**

Honako hauek dira deialdi honen oinarriak:

OINARRIAK

1. Xedea.

Deialdi honen xedea da hautaprobez bidez zerrenda bat egitea, legelari gisa aldi baterako kontratatuak izateko izangaiena, Nafarroako Parlamentuan sortzen diren beharrei aldi baterako erantzuna emate aldera, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileak aldi baterako kontratatzeari buruzko Erregelamenduan adierazten denarekin bat.

2. Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Prozeduran onartuak izateko, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

Espainiako nazionalitatea edukitzea, edo Europar Batasuneko kide den estatu batekoa, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitakoak izanik langile-zirkulazio askea aurreikus-tzen duten nazioarteko itunen aplikazio-esparruan dagoen estatu batekoa.

Halaber parte hartzen ahalko dute espainiarren eta Europar Batasuneko kide diren beste estatu batzuetako herritarren edo aipatu nazioarteko itunek ukitutako estatuetako herritarren ezkontideek ere, baldin eta ez badaude zuzenbidez bereizita, bai eta haien ondorengoek eta ezkontidearenek ere, zuzenbidez bereizita ez daudenean, hogeita bat urte baino adin txikiagoak badira, edo haien kontura bizi diren adin horretatik gorakoak.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina ez gainditzea.

c) Zuzenbideko lizentziatu edo graduatu titulua- ren edo horietakoren baten baliokide gisa deklaratu izan den titulu ofizial baten jabe izatea, edo hori eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria edukitzea, edo, kasua bada, hura eskuratzeko baldintzetan egon izanaren ziurtagiria edukitzea, eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik.

Atzerrian lortutako tituluen kasuan, dagokien baliozkotzea edo horien homologazioaren frogagiri ofiziala eduki beharko dira aipatutako data horretan, edo bestela, baliokidetasun-ziurtagiri ofiziala. Betekizun hori ez zaie aplikatuko izangaiei, baldin eta Europako Erkidegoko xedapenen babesean lortu badute, lanbide arautuen esparruan, beren lanbide-kualifikazioaren aitortpena.

d) Kasuan kasuko eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa edukitzea.

e) Ez daukala eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitzerik ez eta etendurarik ere, eta ez dela administrazio publiko baten zerbitzutik bereizita izan, ez eta diziplinazko kaleratzez iraitzia ere.

2.2. Ulertuko da baldintza guztiak beteta eduki beharko direla eskabide-aurkezpenerako epea bukatzen den egunean, eta baldintza-betetze horri eutsi beharko zaio hautapen-prozesuan zehar, kontratazio-eskaintza egiteko unean eta kontratuaren indarraldian.

2.3. Kontrataziorako deituak diren izangaiek beste inork ez du aurkeztu beharko betekizun horiek betetzen direla egiaztatzen duen jatorrizko dokumentazioa edo kopia konpultsatua, kasuko kontratua formalizatu baino lehen. Behar adina justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan ez baldin bada, aipatutako agiri horiek aurkezten ez dituzten pertsonak ezin izanen dira kontratatuak izan, eta haien egintza guztiak deuseztatuta geldituko dira, horrek eraginik izan gabe beren eskabideko faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzukizunean.

3. Hautapen-prozesua.

Prozesua 2026ko irailtik aurrera hasiko da, Nafarroako Parlamentuaren webgunean iragarriko diren tokian, egunean eta orduan, zeinak gutxienez ere hamabost egun natural lehenago iragarriko baitira, eta deialdi honetan jasotako arauetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan xedatutakoaren arabera garatuko dira.

4. Lanposturako deia eta zerrendaren indarraldia.

4.1. Gainditu duten izangaiei Nafarroako Parlamentuan suertatzen diren beharrezkoen arabera dei egin ahalko zaie, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko langileak aldi baterako kontratatzeari buruzko Erregelamenduak xedatuari eta deialdi honetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritakoari jarraituz, eta aldi baterako administrazio-kontratua egiten zaie, legelari gisa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan aldi baterako kontratazioak egiteari buruzko araudia osagarri gisa erabiliko da.

Lanpostua A mailakoa da, eta haren lantsariak izanen dira maila horri dagozkionak, Nafarroako Parlamentuko plantilla organikoan zehazten direnak.

4.2. Izangaiei dei egiterakoan, kontuan hartuko da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko aldi baterako langileak kontratatzeari buruzko Erregelamenduen 13. artikuluan ezarritakoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 7. xedapen gehigarrian ezarritakoa, eta Nafarroako Parlamentuko Legelari Nagusiaren 59/2016 Ebazpena, 2016ko azaroaren 8koa, desgaitasuna duten pertsonen enplegu publikorako lorbidea izateari dagokionez. Desgaitasuna duten pertsonentzako kontratu-erreserbaren arloko salbuespen horiek salbu, zerrendako lehentasuna ariketetan lorturiko puntuazio handienaren arabera ezarriko da.

4.3. Kontratatuei alta emanen zaie Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean, eta, beraz, haien konturakoak izanen dira kasuan kasuko kuota, bai eta aplikatu beharreko zerga-araudiaren arabera dagokion PFEZaren konturako atxikipena.

4.4. Kontratuan bi hilabeteko probaldia ezarriko da. Aldi horretan zehar, alderdietako edozeinek zilegi izanen du kontratua aldeakartasunez hutsaltzea. Ez da probaldirik ezarriko baldin, kontratu bat amaitu ondoren, izangaia lanpostu bererako berriro kontratatzen bada urtebete igaro aurretik. Mahaiak, kasuko zerbitzuburuaren ekimenari erantzunez, jotzen duenean langile kontratatuak ez duela probaldia gainditu, bere erabakiaren berri eman beharko dio Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeari.

4.5. Aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak sei urteko indarraldia izanen du, Nafarro-

ako Parlamentuaren zerbitzupeko aldi baterako langileak kontratatzeari buruzko Erregelamenduari buruzko bat. Baldin eta zerrendaren indarraldian lanpostu bererako beste zerrenda berririk egiten bada, zerrendarik zaharretako izangaiek lehentasuna izanen dute berrietako aldean, zerrenda zaharrenaren indarraldia amaitzen ez den bitartean.

5. Parte hartzeko eskabideak.

5.1. Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek telematikoki aurkeztu beharko dute beren eskaera, Internetez, Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa (<https://sede.parlamentodenavarra.es>) eskuragarri egonen den eskabide bat erabiliz (“Administrazio-izapideak/Langileria-deialdiatarako eskabidea” atalean).

5.2. Langile-deialdien eskabideari nahitaez erantsi beharko zaio parte hartzeko eskaera, I. eranskineko ereduaren arabera, eta interesdunentzat eskuragarri egonen dena Nafarroako Parlamentuaren www.parlamentodenavarra.es/eu webguneko “Gardentasuna/Langile-zerrendak eta -deialdiak/Langile-deialdi publikoak/2026ko ekitaldia” atalean.

5.3. Parte hartzeko eskaeran, izangaiek adierazi beharko dute ezarrita dauden baldintza guztiak betetzen dituztela eskaerak aurkezteko zehaztutako epea amaitzen den egunean.

5.4. Parte hartzeko eskaerarekin batera, izangaiek Nortasun Agiri Nazionalaren, pasaportearen edo beste identifikazio-agiri ofizial baten kopia aurkeztu beharko dute.

5.5. Espainiako nazionalitatea ez duten pertsonak beren identitatea eta nazionalitatea frogatzen dituzten agirien kopiak aurkeztu beharko dituzte, bai eta, kasua bada, 2.1.a) apartatuan ezarritako nazionalitate- eta ahaidetasun-baldintzei buruzkoena ere. Halaber, aurkeztu beharko dute zinpeko edo hitzemandeko adierazpena, beren jatorrizko herrialdean funtzio publikorako sarbidea eragozten duen diziplina-zehapenik edo zigor penalik jaso ez dutela dioena.

5.6. Ehuneko 33ko edo hortik gorako desgaitasun aitortua duten izangaiek legezko desgaituzaeraren frogagiria erantsi beharko dute, zeina organo eskudunak jaulkitako dokumentuaren kopia bat izanen baita, eta zilegi izanen dute balizko denbora- edo baliabide-egokitzapenak eskatzea horiek beharrezkoak dituzten ariketa egiteko. Kasu horretan, horren berri eman beharko dute parte hartzeko eskabidean, aparteko orri batean adierazi beharko dute zer desgaitasun duten eta zein diren eskatzen dituzten egokitzapenak.

5.7. Halaber, deialdi honetan parte hartzeko betekizun gisa exijitzen den titulazio ofizialaren kopia aurkeztu beharko dute. Atzerrian lortutako tituluei dagokienez, horien homologazioaren frogagiri ofizialaren edo, kasua bada, baliokidetasun-zurtagiri ofizialaren kopia aurkeztu beharko da.

5.8. Ez da beharrezkoa izanen aurkeztutako dokumentazioa jatorrizko dokumentuak izatea, ezta fotokopia konpultsatuek ere. Dokumentu horien kopia sinpleak aurkez daitezke, baina aurkeztutako datuak edo dokumentuak okerrak edo faltsuak badira, sor litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak eskatuko dira. Hala ere, Nafarroako Parlamentuak edozein unetan eska ditzake aurkeztutako dokumentazioaren jatorrizko dokumentuak edo fotokopia konpultsatuek.

Ofizios egiatztatutako datuen eta interesdunak deklaraturakoen artean desadostasunen bat balego edo horiei buruzko alderdiren bat argitu beharra balego, dagokion errekerimendua egingen da, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

6. Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hogeita egun naturala izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Eskabideak aurkezteko epea ezin izanen da luzatu.

7. Izangaien onarpena. Behin-behineko zerrenda eta behin betikoa.

7.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du Nafarroako Parlamentuko lehendakariak, eta aginduko du Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadila. Zerrenda horretan agertuko dira onartutako nahiz baztertutako izangaien izen-deiturak. Pertsona baztertuturik ez badago, zilegi izanen da zuzenean onestea behin betiko zerrenda. Orobat, <https://parlamentodenavarra.es/eu> webgunean ere argitaratuko da, “Gardentasuna/Langile-zerrendak eta -deialdiak/Langile-deialdi publikoak/2026ko ekitaldia” atalean.

7.2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzinako hamar egun baliaduneko epean, interesdunek zerrendatik kanpo geratzearen arrazoiari buruzko erreklamazioak egin ahalko dituzte, eta, kasua bada, hori eragin duten balizko akatsak zuzendu ahalko dituzte. Alegazioak telematikoki aurkeztuko dira, Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa bidez.

Alegazioak aurkezteko epea iraganik eta horiek ebatzirik, Nafarroako Parlamentuko lehen-dakariak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, zeina honako hauetan argitaratuko baita: Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta <https://parlamentodenavarra.es/eu> webguneko “Gardentasuna/Langile-zerrendak eta -deialdiak/Langile-deialdi publikoak/2026ko ekitaldia” atalean.

Emandako epean aurkeztutako eskaera zuzentzen ez duten edo behar bezala zuzentzen ez duten izangaiek alegazioetan atzera egin dutela ulertuko da.

7.3. Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi deialdiko prozeduran eskatutako baldintzak betetzen dituztela aitortzen zaienik zerrendan ageri direnei. Kontratatuak izateko deituz gero aurkeztu beharreko dokumentaziotik ondorioztatzen bada interesdunak ez duela betekizunen bat betetzen, horrek galdu egingen du prozedura honetan parte hartzetik hel litekeen eskubide oro, eta horrek ez ditu ezertan galaraziko faltsutasunagatik erator lekizkiokeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

7.4. Aurrez adierazitako moduan izangai onartu eta baztertuen zerrenda argitaratzearekin ulertuko da interesdunei egin beharreko jakinarazpena egin dela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan aipatzen diren ondorioetarako.

8. Kalifikazio-epaimahaia.

8.1. Honako kide hauek osatuko dute kalifikazio-epaimahaia:

Lehendakaria: María Teresa Esporrín Las Heras andrea, Nafarroako Parlamentuko lehen lehendakariordea.

Ordezkoa: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacias jauna, Nafarroako Parlamentuko bigarren lehendakariordea.

Epaimahaikidea: Silvia Doménech Alegre andrea, Nafarroako Parlamentuko legelari nagusia.

Ordezkoa: Ignacio Ordoki Guarch jauna, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

Epaimahaikidea: Isabel Cañas Palacios andrea, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

Ordezkoa: Gemma Angélica Sánchez Lerma, Nafarroako Kontuen Ganberako legelaria.

Epaimahaikidea: Langileen Batzordeak proposatuta hautatu beharrekoa.

Ordezkoa: Langileen Batzordeak proposatuta hautatu beharrekoa.

Epaimahaikide-idazkaria: Miguel Ángel Núñez Iriarte jauna, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

Ordezkoa: José Contreras López jauna, Nafarroako Kontuen Ganberako idazkari nagusia.

8.2. Baldin eta, legez ezarritako abstentzio- eta errefus-arrazoiak aplikatuz, epaimahaiaren osaran inolako aldaketarik balego, izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera argitaratuko litzateke aldaketa hori.

8.3. Epaimahaia hautaprobei aurretik eratu beharko da. Parlamentuko Langileen Batzordeak hautatutako ordezkarien izendapena izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzearekin batera egingen da.

8.4. Epaimahaia ezin izanen da eratu edo jardun baldin eta gutxienez ere haren kideen gehiengo osoa ez bada bertaratu. Halaber, epaimahaiaren eraketa eta jarduna balioudunak izateko, beharrezkoa izanen da epaimahaiburua eta epaimahaiaren idazkaria bertaratu egon daitezela; edo, kasua bada, haien ordezkioak.

8.5. Epaimahaiak gehiengo ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeari eta aplikatzeari buruz sortzen ahal diren ebazkizun guztiak.

8.6. Kalifikazio-epaimahaiko kideak esku hartetik abstenitu beharko dira, eta organo dei-egileari horren berri eman beharko diote, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean aipatzen diren abstentzio-kausetakoren bat beraiei aplikatzeko modukoa bada. Halaber, izangaiek zilegi dute aipatu kausak aplikatzeko modukoak zaizkien epaimahaikideak errekusatzea.

8.7. Epaimahaiak zilegi izanen du probarako aholkulari espezialistak bereganatzea. Aholkulari horiek epaimahaiari beren espezialitate teknikoetan jardutera mugaturik lagunduko diote. Proben antolaketarako, Nafarroako Parlamentuko zerbitzu orokorrek laguntza emanen diote epaimahaiari.

9. Hautapen-prozesuaren bilakaera eta balorazioa.

9.1. Hautapen-prozesua 2026ko irailtik aurrera hasiko da, Nafarroako Parlamentuaren webgunean iragarriko diren tokian, egunean eta orduan, zeinak gutxienez ere hamabost egun natural lehengo iragarriko baitira. Bi kanporatze-ariketa izanen ditu, zeinak egun ezberdinetan egingen baitira, eta honela gauzatuko da:

a) Lehen ariketa: ariketa teorikoa, gehienez ere hiru ordutan egin beharko da, eta bertan bi gai azaldu beharko dira idatziz. Gaiak epaimahaiak ausaz aukeratuko ditu deialdiko II. eranskinean zehaztutakoetatik. Proba egiten den bitartean ezin izanen da testurik edo dokumentaziorik erabili, ez eta hiztegiarik, kalkulagailurik, gailu elektronikorik, erloju adimendunik edo bestelako materialik ere. Tinta urdineko nahiz beltzeko bolaluma bat soilik erabili ahalko da.

b) Bigarren ariketa: ariketa praktikoa. Irizpen bat idatzi beharko da, Nafarroako Parlamentuaren funtzionamenduari eta eskumenei dagozkien gaietarako buruzko kasu baten gainean. Izangaiek gehienez ere hiru ordu izanen dituzte ariketa hau egiteko, eta beraiek ekartzen dituzten legezko testu iruzkin gabeak erabili ahalko dituzte.

9.2. Hautaprobak honela kalifikatuko dira:

Lehenengo ariketa, teorikoa: 50 puntu bitarte.

Bigarren ariketa, praktikoa: 50 puntu bitarte.

Hautaprobetako ariketa bakoitza baztergarria izanen da, eta bazterturik geldituko dira horietako bakoitzean gutxienez 25 puntu lortzen ez duten izangaia. Lehen ariketa gainditzeko ezarritako gutxienezko puntuazioa lortu dutenek baino ez dute eginen bigarren ariketa.

9.3. Hautaprobetako ariketak irakurtzeko ekitaldia publikoa izanen da.

9.4. Hautaprobetako ariketak honako arau hauei jarraikiz eginen dira:

Bi ariketak idatziz eginen dira. Ariketa bakoitza bukatu ondoren, izangaiek gutun-azal batean sartuko dituzte idatzi dituzten folioak. Gutun-azal horren hegalean interesdunak eta epaimahaiko idazkariak izenpetuko dute eta idazkariak gordeko du gutun-azala.

Epaimahaiak zehaztutako egunean, izangaiek ariketen irakurketa publikoa eginen dute. Izangaiekin abizenaren hurrenkera alfabetikoaren arabera eginen da irakurketa. Izangaiek beraiek izenpeturiko gutun-azalak epaimahaiaren aurrean irekiko dituzte eta ariketa jendaurrean irakurriko dute. Epaimahaiakideek, ariketak irakurri direnean, argibideak edo azalpen zabalagoak eskatzen ahalko dizkiete izangaiei beren ariketen edukiaz. Ariketen jendaurreko irakurketa bukatzen denean, epaimahaiak ariketak aztertu, analizatu eta kalifikatuko ditu.

Oinarri honetan ezarritakoa betetzen ez duten izangaiek beren eskubideak galduko dituzte.

Epaimahaiak www.parlamentodenavarra.es/eu webguneko "Gardentasuna/Langile-zerrendak eta -deialdiak/Langile-deialdi publikoak/2026ko ekitaldia" atalean argitaratuko ditu ariketa bakoitzean lortu diren emaitzak. Interesdunek bost egun balioduneko epea izanen dute, emaitzak argitaratzen diren egunaren biharamunetik kontatzen hasita, emaitzen inguruko alegazioak telematikoki aurkezteko. Alegazioak aurkezteko epea igaro eta alegazioak ebatzi ondoren, epaimahaiak proben behin betiko emaitzak argitaratuko ditu Nafarroako Parlamentuaren webgunean.

Epaimahaiak bigarren ariketaren eguna eta ordua iragarriko ditu Nafarroako Parlamentuaren webgunean, gutxienez 48 ordu lehenago.

9.5. Izangaiekin puntuazio osoa lehenengo eta bigarren hautaprobetan lortutako puntuazioen batura izanen da. Gainditzeko, horietako bakoitzean eskatutako gutxienezko puntuazioa eskuratu beharko da.

9.6. Ariketa bakoitzerako eta irakurketa publikoetarako, deialdi bakarra eginen da. Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala, pasaporte, gidabaime edo epaimahaiak nahikotzat jotzen duen beste identifikazio-agiri bat aldean dutela agertu beharko dute, eta deialditik baztertuta geldituko dira agertzen ez diren edo beren nortasuna egiaztatzen ez duten izangaia.

9.7. Probak egiteko, posible diren denbora- eta baliabide-egokitzapenak eginen dira desgaitasun aitorturen bat duten pertsonentzat, beren eskabidean horietarako nahia adierazi badute, eta azaldu dutenaren arabera.

10. Probak gainditu dituztenen zerrenda eta agiri-aurkezpena.

10.1. Probak kalifikatu ondoren, probak gainditu dituztenen zerrendak argitaratuko ditu epaimahaiak, puntuaziorik handienetik txikienerako hurrenkeran ordenatuta. Zerrenda hori Nafarroako Parlamentuaren webgunean argitaratuko da.

10.2. Puntuazioan eman daitezkeen berdinketak ebazteko, irizpide hauek hartuko dira aintzat, aipatzen diren hurrenkeran: lehen ariketan lortutako puntuazioa eta bigarren ariketan lortutako puntuazioa. Horrela ere berdinketak bere horretan badirau, zozketa bidez ebaztuko da.

10.3. Aldi baterako legegari lanpostuan jarduteko, kasuko administrazio-kontratua tarteko, kontratazioarako deituak direnek, jatorrizko dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

– Nortasun-agiri nazionala edo identifikazio-agiri ofiziala.

– Deialdian exijitutako titulazio ofiziala.

Aurreko apartatuetan aipatutako agiriak aurkeztea ezinezkoa gertatzen dela behar bezala frogatzen denean, zuzenbidean onarturiko edozein frogabide erabiliz frogatu ahalko da deialdian ezarritako baldintzak betetzen direla.

Exijitutako betekizunak betetzen ez dituztenak kontratazio-zerrendatik baztertuko dira, eta galdu eginen dituzte deialdian parte hartzetik erator lekizkiekeen eskubide guztiak.

10.4. Zerrenda osatzen duten izangaiei dei eginen zaie Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko langileak aldi baterako kontratatzeari buruzko Erregelamenduan eta oinarri hauetan ezarritakoarekin bat.

11. Jarduketak argitaratzea.

Ezertan galarazi gabe argitaratze ofiziala Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta/edo Nafarroako Aldizkari Ofizialean izan beharrekoa duten tramiteak, proba-deialdiei eta kalifikazioei buruz epaimahaiak egindako akordio, ebazpen eta jarduketei buruzko informazioa, bai eta interesdunentzat lagungarria den beste edozein informazio orokor ere, Nafarroako Parlamentuaren

www.parlamentodenavarra.es/eu webgunean argitaratuko da, “Gardentasuna/Langile-zerrendak eta -deialdiak/Langile-deialdi publikoak/2026ko ekitaldia” atalean.

12. Errekurtsoak.

12.1. Deialdi honen, bere oinarrien eta berari buruz Nafarroako Parlamentuko Mahaiak hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsioetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsoa, Legebiltzarreko Mahaiari zuzendua, hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, egintza edo erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

12.2. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak edo kalifikazio-epaimahaiak deialdi hau aplikatzeko erabakitzen dituzten gainerako egintzen aurka, zilegi izanen da gora jotzeko errekurtsoa aurkeztea Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, hilabeteko epean, egintza, erabakia edo ebazpena argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita.

I. ERANSKINA**Legelarien kontratazio-zerrendarako eskabide-eredua****1) Datu pertsonalak**

Izen-abizenak: _____

Nortasun Agiri Nazionalaren, Atzerritarraren Identifikazio-zenbakiaren edo beste identifikazio-agiri ofizial baten zenbakia (honekin batera, agiriaren fotokopia): _____

Jaioteguna: _____ Helbidea: _____

Udalerrria: _____ Probintzia: _____ Posta-kodea: _____

Telefonoa/k: _____ Posta elektronikoa: _____

2) Desgaitasuna dutenentzako (bidezkoa denean bakarrik)

100eko 33ko edo gehiagoko desgaitasun aitortua dut (honekin batera, desgaitasuna duen pertsonaren legezko izaera dutelako frogagiriaren kopia)

Ariketak egiteko, honekin batera aurkezten dudan orrian adierazitako baliabide-egokitzapena eskatzen dut, adierazten diren arazoak direla-eta (aparteko orri batean, desgaitasun-mota eta eskatutako egokitzapenak zehaztuko dira).

3) Deialdian parte hartzeko eskatutako titulazioa

Honekin batera, deialdi honetan parte hartzeko betekizun gisa exijitzen den titulazio ofizialaren kopia.

4) Halaber adierazten dut:

Ez dudala karguan aritzea eragozten didan eritasunik edo akats fisiko edo psikikorik, eta ez nagoela xedapen indardunetan ezarritako ezintasun-egoeretako batean ere.

- Ez naizela bereizia izan inongo administrazio publikoren zerbitzutik, ez eta diziplinazko kaleratzez iraitzia ere, eta ez naizela ez ezgaitua ez etenarazia izan eginkizun publikoetan jarduteko.

- Baditudala deialdian eskatzen diren tituluak eta bertako baldintza guztiak betetzen ditudala, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

ESKATZEN DUT onartua izan nadin Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko legelari gisa lan egiteko aldi baterako kontratazioa xedetzat izan den izangai-zerrenda bat prestatzeko deialdian, zeina _____ko _____aren _____(e)ko _____ zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

_____ (e)n, 2026ko _____ren _____ (e)(a)n

(Sinadura)

Oharra: Eskabidearekin batera aurkeztu NANaren, pasaportearen edo beste identifikazio-agiri ofizial baten kopia, eskatutako titulazio akademikoaren kopia eta, hala badagokio, legezko desgaitu-izaeraren frogagiriaren kopia.

Datu Pertsonalen Babeserako 2016/679 Europako Erregelamenduari (DPBE) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraikiz, honako honen berri ematen dizugu, emandako datu pertsonalak direla-eta:

Erantzulea eta helburua: Izaera pertsonaleko datuak Nafarroako Parlamentuak tratatu eta “Giza Baliabideak” tratamendu-sisteman sartuko ditu, zeinaren xedea baita Nafarroako Parlamentuaren giza baliabideen erregistrarako eta kudeaketarako behar diren datuak lortzea. Datu horiek erabiliko dira langile-hautaketako eta lanpostu-betetzeetako prozesuetan, langileen prestakuntzan, bateraezintasunen gaineko kontrolean, lan arriskuen prebentzioan, alta eta baja prozesuetan, eta Gizarte Segurantzari eta, kasua bada, mutualitatei eta gizarte aurreikuspeneko entitatei eta aseguru-enpresari eginiko komunikazioetan, bai eta kontrol presentzian ere.

Legitimazioa: Helburua oinarritzen da legezko betebeharraren betetzean eta Nafarroako Parlamentuaren ahal publikoen egikaritzean, funts juridikoa honako hau izanda:

DPBEren 6.1.e) artikulua eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua, Erregelamendu Batzordeak 1991ko martxoaren 20an egindako bilkuran onetsia (19. NPAO, 1991ko martxoaren 26koa).

Eskubideak: Orobat, jakinarazten dizugu eskubidea daukazula Nafarroako Parlamentuari eskatzeko eskuratu, zuzendu, ezabatu eta eraman ahal izatea zure datuak, bai eta datu horien tratamendua mugatzeko eta ukatzeko ere, bidezkoa denean, Nafarroako Parlamentuari eskaria eginez Navas de Tolosa kalea, 1, 31002 Iruña helbidean edo posta elektronikoko dpd@parlamentodenavarra.es helbidean.

Gordetzea: honako arau hauei jarraikiz gordeko dira datuak: Nafarroako Parlamentuko Artxiboari eta Dokumentuen Kudeaketari buruzko Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2023ko urtarrilaren 16an onetsia (2023ko urtarrilaren 19ko 8. zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua), eta Nafarroako Parlamentuko administrazio elektronikoen funtzionamenduari buruzko Erregelamendua, Parlamentuko Mahaiak 2023 urtarrilaren 9an onetsia (2023ko urtarrilaren 12ko 4. zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua).

II. ERANSKINA – GAI-ZERRENDIA

1.- Konstituzioa arau juridiko gisa. Espainiako 1978ko Konstituzioaren edukia. Konstituzio-arauak interpretatzeko irizpideak. Legeak Konstituzioaren arabera interpretatzea.

2.- Zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoa. Parlamentuzko monarkia, Estatuaren forma politikoa.

3.- Aniztasuna eta alderdi politikoak. Alderdi politikoaren estatus juridikoa demokrazia garaikideetan.

4.- Espainiako hauteskunde-sistema. Diputatuaren Kongresurako eta Senatuko hauteskundeak. Autonomia erkidegoetako legebiltzarretarako hauteskundeak. Hautespen aktiboaren eta pasiboaren eskubidea. Hauteskunde-administrazioa.

5.- Estatuaren eta autonomia-erkidegoen legegintza ahalmena. Oinarrizko legeak, esparrulegeak, transferentzia- edo eskuordetze-legeak eta harmonizazio-legeak. Foru-legeak, foru lege-dekretuak, legegintzako foru-dekretuak eta tributuharmonizaziorako legegintzako dekretuak. Motak.

6.- Oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen teoria. Parte-hartze politikorako eta kargu publikoak betetzeko eskubidea. Babes judizial eraginkorrerako eskubidea. Berme prozesalak.

7.- Konstituzio Auzitegia. Osaera eta eginkizunak. Jurisdikzioa eta eskumena. Arauen kontrol abstraktua: konstituzio-kontraktotasuneko errekurtsioa. Konstituzio-kontraktotasuneko auzia. Babes errekurtsioa.

8.- Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa: egiteko prozesua. Izaera eta esanahia. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa erreformatzeko prozedura.

9.- Nafarroako Parlamentua edo Gorteak. Aurrekariak. Osaera eta eginkizunak. Foru-parlamentariak: Eskubide eta betebeharrak; foru-parlamentariaren izaera eskuratzea eta galtzea. Nafarroako Parlamentuko hauteskunde-sistema. Nafarroako Parlamentuaren eraketa. Legegintzaldia eta bilkura-aldiak. Biltzarra desagitea.

10.- Nafarroako Gobernu edo Foru Diputazioa. Aurrekariak. Eginkizunak eta eskumenak. Gobernu kideak. Abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzkoa. Legea garatzeko araudia.

11.- Nafarroako Gobernu edo Foru Diputazioko lehendakaria. Haren hautapena. Nafarroako Gobernu lehendakariaren erantzukizuna Nafarroako Parlamentuaren aurrean. Zentsura-mozioa. Konfiantza-arazoa.

12.- Nafarroako Foru Komunitatea: eskumenak banatzeko sistema.

13.- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa. 11/2019 Foru Legea, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa. I. titulua: Xedapen orokorrak. II. titulua: Foru Administrazio Publikoaren araubide orokorra. III. titulua: Foru Administrazio Publikoaren eta Foru-sektore publiko instituzionalaren antolaketa. IV. titulua: Foru-lege mailako arauak eta erregelamenduak prestatzea.

14.- Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua. Prestaketa, erreforma, egitura eta interpretazioa. Autonomia parlamentarioa Nafarroako Parlamentuan. Legebiltzarren autonomia finantzarioa bere aurrekontua onetsi eta betetzerakoan.

15.- Legebiltzarretako lehendakaritza eta gobernu organoak. Mahaia eta bere esanahi tekniko-parlamentarioa. Eledunen Batzarra. Espainiako eta Nafarroako zuzenbidea arlo horietan.

16.- Parlamentuko lan-organoak. Batzorde Iraunkorra. Nafarroako Parlamentuaren funtzionamendua. Bilkurak eta bilkura motak Nafarroako Parlamentuan. Epeen zenbaketa eta egun baliodunak. Bilkurak eta haietarako deialdiak. Gai-zerrenda: taxutzea eta aldatzea. Quoruma.

17.- Talde parlamentarioak eta horien konstituzio-esanahia. Taldeen antolamendua. Talde-sistemaren eragina legebiltzarren antolamenduan eta funtzionamenduan. Talde mistoa, foru-parlamentariaren elkartek eta atxiki gabeko parlamentaria Nafarroako Parlamentuan. Espainiako eta Nafarroako zuzenbidea arlo horietan.

18.- Legegintza. Legegintza-ekimena eta motak. Zuzenketak: kontzeptua, motak eta betekizunak. Legegintzako prozedura ohikoak eta legegintzako prozedura bereziak. Espainiako eta Nafarroako zuzenbidea arlo horietan.

19.- Parlamentuaren eginkizun ekonomikoa. Nafarroako aurrekontu orokorrak onestea. Parlamentuko izapidetzearen berezitasunak. Aurrekontu-betetzearen kontrol parlamentarioa. Nafarroako Kontu Orokorraren izapidetzea. Legebiltzarrek kredituen arloan dauzkaten mugak: kredituak handitzea edo diru-sarrerak gutxitzea dakarten zuzenketak eta lege proposamenak. Espainiako eta Nafarroako zuzenbidea arlo horietan.

20.- Gobernua kontrolatzeko berariazko prozedurak. Galderak eta interpelazioak. Ikerketa-batzordeak. Espainiako eta Nafarroako zuzenbidea arlo horietan.

21.- Bultzatze edo zuzendaritza politikoa. Politika orokorrari buruzko eztabaidak. Mozioak.

22.- Eztabaida parlamentarioa. Sistemak. Hizpidea edukitzea. Aipamenak. Gaiari lotzeko eta ordena gordetzeko deiak. Parlamentuko gizalegea. Eztabaida gure zuzenbide parlamentarioan (Nafarroakoan). Botoa emateko sistemak eta hurrenkera. Gehiengoak eta berdinketak ebaztea.

23.- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko langileak: araubide juridikoa; sartzea eta karguztea; egoerak; eskubideak, betebeharrak eta bateraezintasunak; diziplina-araubidea.

24.- Kontratu publikoei buruzkoa Foru Legea I: aplikazio-esparrua eta arau orokorrak. Botere adjudikatzaileak. Kontratistak. Kontratuen tipologia eta araubide juridikoa.

25.- Kontratu publikoei buruzko Foru Legea II: kontratuak kudeatzeko printzipioak eta arauak. Publizitate arauak eta adjudikazio-prozedurak eta irizpideak.

26.- Kontratu publikoei buruzko Foru Legea III: Kontratuak exekutatzea. Erreklamazioak eta lizitazioen kontrolerako beste neurri batzuk. Administrazio Publikoek egiten dituzten kontratuen arau berariazkoak.

27.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

28.- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.

29.- Datu pertsonalen babesa Europan eta Espainian. Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko Lege Organikoa.

30.- 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa. Gardentasuna eta parte-hartzea: Nafarroako Parlamentuko araudia.

Oharra: Eduki guztiak eskatuko dira deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarreko legerian agertzen diren bezala.

